

# Puntako atletak izango dira apirilaren 18an izango den nazioarteko duatloian

**Kirola** » Catriona Morrison eta Rob Woestembochs munduko txapeldunek proban parte hartuko dutela iragarri dute.

## D. LAUZIRIKA

Urdaitri Duatloi eta Triatloi elkar-terko kideek jakinarazi dutenez, apirilaren 18an izango da Gernika-Lumoko Nazioarteko XIV. Duatloia-V. Paul Seco memoriale. Data finkoa dela adierazi dute antolatzaileek. Emakumeen lasterketa 16:00etan hasiko da eta gizonezkoena 16:30ean.

Dagoeneko puntako zenbait duatletak egun horretan Gernika-Lumon izango direla ziurtatu diote antolakuntzari. Horrela, Rob Woestembochs 2008ko duatloiko munduko txapelketaren irabazlea, Jurgen Dereere Europako txapelduna eta Bart Aernouts 2008ko munduko txapelketako hiruga-



Iaz Urdaitri triatloi eta duatloi elkar-terko antolatutako nazioarteko duatloian une bat. MAITE ORUE

ren sailkatuak parte hartuko dute nazioarteko duatloian. Aipatutako hiru duatletak belgikarrak dira.

Paul Amey 2007ko munduko txapeldunarekin batera, Raf Baug eta James Attad australiarrek ere parte hartuko dute proban. Urtero legez, Nicolas Capoferry frantziarra, Felix Martinez espainiarra eta Javier Garcia Kebi Sport taldeko

madrildarra lehian ariko dira Gernika-Lumon.

### Emakumeetan maila handia

Emakumezkoen lasterketan ere maila handiko duatletek parte hartuko dutela iragarri du antolakuntzak.

Besteak beste, Catriona Morrison distantzia luzeko duatloiko

munduko txapelduna eta Radka Vodickova Europako txapelduna Gernika-Lumon izango dira apirilaren 18an.

Horiekin batera Alexandra Louison frantziarrak, Agnes Kay Appers estatubatuarra eta Ana Burgos espainiarra ere euren parte-hartzea iragarri dute. Duatleta euskaldunei dagokienez, urtero legez Virginia Berasategi bilbotarrak eta Ainhoa Murua zarautzarrak nazioarteko duatloian parte hartuko dute.

Saritan 7.800 euro banatuko dituztela adierazi dute antolatzaileek. Euren ustez, «Gernika-Lumoko lasterketa Europako probarik onenen artean mantentzen da».



**GARBILAN**  
**GARBKETAK**

Torre Barri, 6 - 2.B • FORUA  
Tel.: 94 625 54 85  
Sakelekoa: 699 054 829